

Mendebaleko lexiko dialektala

Koldo Zuazo

UPV/EHU

Laburpena

Azken urteotan —Ibon Sarasolari esker, gehienbat— hiztegegintzan egin den bide luzea jarraitze aldera, ahozko euskara ekarri dut saio honetan gogora. Mendebaleko euskalkia hartu dut adibide. Euskalki horretako hitz orokorrak ezagunak direnez, eta bertako azpieuskalki bietakoaz ere zer edo zer aurkeztuta dagoenez, hango hizkeretako izan dut aztergai. Zazpi hizkera nagusi ageri dira eta horietako bakoitzean erabiltzen diren hitz bereziak erakutsi ditut. Eremu bi agertzen dira nortasun handiko: ipar-mendebala eta hego-ekialdea. Uribe Kosta, Mungialdea eta Txorierra daude lehenengoan; Leintz harana, Oñati eta Aramaio, bigarrenean.

0. Sarrera

Azken hamarkadetan aurrerakuntza nabarmena gertatu da euskal hiztegegintzan eta, zalantzarik gabe, Ibon Sarasola izan da bilakaera horretako ardatz nagusia. Haren omenez idatzi ditut ondorengo lerroak.

1. Mendebaleko lexikoa

Begi-bistako arrazoiengatik, hizkuntza idatzia baliatu ohi da hiztegegintzan. Bigarren mailan utzi ohi da hizkuntza mintzatua. Gutxi landu eta gutxi ezagutu ohi da. Horixe izango dut saio honetan hizpide eta mendebaleko euskara hartuko dut adibide.

Ezagun samarra da mendebaleko euskalkiaren lexiko orokorra. Ezagutzen nuena oraindik orain erakutsi dut *Euskalkiak* (Zuazo 2014: 175-179) izeneko liburuan. Mendebalean ageri diren bi azpieuskalkietako ere erakutsi dut saio horretan (Zuazo 2014: 186-187). Lehen aldiz aurkeztzen zen azpieuskalkietako lexikoa eta, uste izatekoa denez, zerrenda ez da ez osoa ez zuzena. Arabako lexikoa ere erakutsi dut *El euskera de Álava* (Zuazo 2013) liburuan: bai aspaldiko izkribuetan agertzen dena (55-150) eta baita gaur egungo arabarren jardunean bizirik iraun duena ere (151-233).

Saio honetan beste urrats bat egingo dut: mendebaleko hizkeretako lexikoa erakutsiko dut. Euskalki hori guztiz aztertu gabe daukadan arren, zazpi hizkera bereizten ditut:

1. *Ipar-sartaldekoa*. Uribe Kostan (hiriburu Getxo duena), Mungialdean (hiriburua Mungia) eta Txorierrin (hiriburua Derio) egiten da. Guztira 25 herri dira. Hiru eskualde horietako bakoitzak badu bere nortasuna, baina, aldeak alde, egitura berekoa dela ematen du. Uribe Kostakoa da denetan bereziena.
2. *Nerbioi ibarrekoa*. Bilbon, Etxebarrin, Basaurin, Arrigorriagan, Zaratamon eta Ugaon egiten da. Osasun ahulekoa da.
3. *Hego-sartaldekoa*. Arratia haranean, Galdakaon eta Zeberion egiten da.
Hego-sartaldeko eta Nerbioi ibarreko hizkera horien artean, bada tarteko eremu bat, batetik eta bestetik elikatzen dena. Hiru herri daude bertan: Orozko, Arrankudiaga eta Arakaldo.
4. *Busturialdekoa*. Zornotza-Gernika-Bermeo ardatzaren inguruan egiten da. Sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien tartekoa da eta ez dauka bereizgarri askorik.
5. *Otxandio aldekoa*. Otxandion, Ubiden eta Aramaioko Oleta auzoan egiten da. Legutiano ere multzo horretakoa izan da, baina hango euskara galdutzat jo dezakegu dagoeneko. Hau ere sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien tartekoa da eta ez dauka bereizgarri esanguratsurik.
6. *Debagoienekoa*. Leintz haranean (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga), Oñatin eta Arabako Aramaio haranean egiten da.
7. *Deba ibarrekoa erdigunekoa*. Bergaran, Antzuolan, Elgetan, Soraluzen, Eibarren eta Ermuan egiten da.

Bada zortzigarren hizkera bat: *Debabarrenekoa*. Elgoibarren, Mendaron eta Mutrikun egiten da. Hori, baina, ezin da mendebalekotzat hartu: mendebaleko eta erdialdeko euskalkien tartekoa da eta, horrenbestean, alde batera utziko dut saio honetan.

Berehala ikusiko denez, euskalkiaren ertz bietako hizkerak dira denetan berezianak: ipar-sartaldekoa eta Debagoienekoa. Ikus ditzagun denak banan-banan.

1.1. *Ipar-sartaldeko berbak eta aldaerak*

Eremua: Uribe Kosta, Txorierra eta Mungialdea.

1.1.1. BERBAK

abrozidu ‘aspertu’; *aldestaio* ‘ganorabako’; *árterago* ‘lehenago, aurre-rago’; *asao/paraje* ‘urrun/hurbil’; *berbots* ‘hitz hots’; *etxa* ‘bota’; *justuri*

‘tximista’; *kazkaragar* (> *kazkar*) ‘kazkabar, txingor’; *laskitu* ‘lorrindu, lardaskatu’; *luki* ‘azeri’ (Nerbioi ibarrean ere bada) (eta *luki-buztan* ‘azeri-buztan [*Equisetum sp.*]’); *sokorru* ‘garrasi, errieta’; *txori-jagole* ‘txorimalo’; *ulertu* (Nerbioi ibarrean ere bada); *zerra* ‘igitai’ adierarekin (Busturialdean ere bada).

Ondorengo hauek eremu txikiagoan erabiltzen dira; Uribe Kostan eta haren inguruetan gehienbat: *aube* ‘amaginarreba’; *barekil* ‘bare (*Fam. Limacidae*)’; *basaratoste* (> *basatoste*) ‘garizuma aurreko igandean basora joan eta zerrikia jan ohi zen txitxiburduntzian erreta’ (Busturialdean ere bada); *gariko/gariteko* ‘gainerako’; *gernu* (> *garnu*); *leba* ‘ardura, axola’; *ohidalako/ohidalez* ‘nahiko, samar’; *sugoi* ‘suge’; *troñu* ‘korapilo’; *txotor* ‘txingor xehea’.

1.1.2. ALDAERAK

girten ‘kirten’ (Nerbioi ibarrean ere bada); *gorta* ‘korta, ukuilu’; *ien* ‘igo’; *ingeru/ingiru* ‘inguru’ (Busturialdean ere bada); *ixi* ‘itxi’; *oilosko* ‘oilasko’ (Busturialdean ere bada); *orrotz* ‘orratz’ (Nerbioi ibarrean eta Busturialdean ere bada).

Eremu txikiagokoak dira hauek: *alderri/aldarri* ‘alderdi’; *duzti* ‘guzti’; *ela* ‘ala’; *eron* ‘eroan, eraman’; *jon* ‘joan’; *zelau* ‘zelako, nolako’ (eta *lau/laseko* ‘lako, bezalako’; *holau/holaseko* ‘horrelako’; *halau/halaseko* ‘halako’).

1.2. Hego-sartaldeko berbak eta aldaerak

Eremua: Arratia, Galdakao, Zeberio.

1.2.1. BERBAK

aitaxe/amaxe ‘aita-/amaginarreba’ (Nerbioi ibarrean eta Txorierriko ekialdean ere badira); *barakarro* ‘bare (*Fam. Limacidae*)’; *berbalots* ‘hitz hots’; *inizitu* ‘tximista’ (Txorierriko ekialdean ere bada); *kanporamartxo* (> *kanpomartxo*, *kanporamartxa*) ‘garizuma aurreko igandean basora joan eta zerrikia jan ohi zen txitxiburduntzian erreta’ (Txorierrin ere bada); *urri lehelengo / urri bigarren* ‘irail/urri’.

Ondorengo hauen eremua txikiagoa da; arrotzak dira Arratian: *aitu* ‘aita, aitona’; *eragon* ‘ari izan’.

1.2.2. ALDAERAK

arazo (> *azo*) ‘arazi’ (Txorierrin ere bada); *azagari* ‘azeri’; *kinpulla* ‘tipula’ (Nerbioi ibarrean eta Txorierrin ere bada); *mozollo* ‘mozolo (*Athene noctua*)’ (Nerbioi ibarrean eta Txorierriko ekialdean ere bada); *ugelatxu/*

txubelaixo ‘igel’ (Nerbioi ibarrean ere bada); *ulle* ‘ile’ (Nerbioi ibarrean, Leioan, Getxon eta Berangon ere bada).

1.3. *Nerbioi ibarreko berbak eta aldaerak*

Eremua: Bilbo, Etxebarri, Basauri, Arrigorriaga, Zaratamo, Ugao.

1.3.1. BERBAK

egosari ‘lapikoko’ (Orozkon ere bada); *uxaita/uxama* ‘aita-/amaginareba’.

1.3.2. ALDAERAK

anpullu ‘anpulu, malko’ (Orozkon eta Zeberion ere bada); *arruntza/arrontza* ‘arrautza’ (Orozkon eta Zeberion ere bada); *bihe* ‘behe’ (Orozkon eta Zeberion ere bada); *ostei* ‘oste, ondoren, atze alde’ (Getxon, Leioan, Orozkon eta Zeberion ere bada); *urtein* ‘irten’ (Orozkon ere bada).

1.4. *Debagoieneko berbak eta aldaerak*

Eremua: Leintz harana, Oñati eta Aramaio.

1.4.1. BERBAK

amarratz ‘armiarma’; *bar(a)utz* ‘adur, lerre’; *biao* ‘siesta’; *egubakoitz* (> *ebakoitz*, *eguakitz*, *eguakotx*) ‘ostiral’; *garbatu* ‘damutu’; *garranga* ‘izotz-burruntzi’; *irastu* (> *irestu*) ‘tximista’; *itu/itoi* ‘ukuilu’; *itxungi/atxingi* ‘itzali’; *jaregin* (> *jarein*) ‘utzi, askatu’; *justuri* ‘trumoi’; *kiribilar* ‘basoilar’; *laru* ‘kolore horixka’; *lekario* ‘irrintzi’; *petrina* ‘larruzko gerrikoa’; *samur* ‘erraz’ esangurarekin; *susuma* ‘higuin’; *takarrada* ‘lasterka’; *tril egin* ‘topo egin’; *urdaintzaki* ‘urdaiazpiko’.

1.4.2. ALDAERAK

betik ‘beti’; *birki* ‘biki’; *egogi* ‘egoki’; *emun* ‘eman’; *fan/fuen/fuan* ‘joan’; *gutxi* (vs mend. *gitxi*); *hafia* ‘habia’; *nahar* ‘lahar’ (Otxandion ere bada); *ordei* (> *ordai*) ‘herdoil’ (mend. *ugar/uger*); *xei* ‘sei’ (Otxandion eta Legutianon ere bada).

1.5. *Deba ibarreko erdiguneko berbak eta aldaerak*

Eremua: Bergara, Antzuola, Elgeta, Soraluze, Eibar eta Ermua.

1.5.1. BERBAK

antxitxika ‘lasterka’; *barren* aurkaritza lokailua (*nora zoiatz hain goiz, seirak pe ezтира barren!* ‘nora zoatz hain goiz, seiak ere ez dira eta!’); *emendau* ‘itzali’ (Goierriko eta Urolaldeko herri batzuetan ere bada); *enor* ‘garatxo’; *satandera* ‘erbinude’.

1.5.2. ALDAERAK

gizur ‘gezur’ (Debabarrean ere bada).

Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2013. *El euskera de Álava*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.